

2019an indartu egin du BGAE indibidualen merkatuan zuen **lidergoa**, % **47ko kuota** lortuta eta **bereganatzen % 50**

## **Baskepensionesek kudeatutako ondarea handitu da, 5.806 milioi eurora arte**

- **Uztailera arte Pentsio Fondoen eta BGAE indibidualen komertzializazioa hazi egin da, bereganatze garbietan 100 milioi inguru lortu ostean**
- **Aurreikuspen indibidualeko produktuetan Estatuko laugarren taldea da Kutxabank, berezko merkatu-kuotarengatik dagokiona baino pisu handiagoa du eta 7.000 milioi eurotik gora kudeatzen ditu, iaz garai berean baino % 3,3 gehiago**

**2020ko abuztuaren 18an** Kutxabank Taldeak kudeatzen dituen aurreikuspen produktuek indar handiarekin hazten jarraitu dute urteko lehen zazpi hilabeteetan. Uztailaren amaieran **7.000 milioi** eurotik gorako ondarea kudeatzen zuen, iaz garai berean baino % **3,3** gehiago, Euskadin % **47ko merkatu kuota** zuen eta % **50** bereganatzeetan.

Aurreikuspen planek izan duten bilakaeraren gako nagusietako bat **sarrera garbi positiboak** izan dira, urteko lehen zazpi hilabeteetan **200 milioi** eurotik gorakoak izan baitira, iaz baino %**12** handiagoak.

Atal honetan deigarria izan da bezeroen emaniko laguntzak eta kudeaketa komertzialak izan duten erantzuna, saldoaren % **37** aurreikuspeneko partaideek erretiroari begira egin ohi dituzten aldizkako ekarpenetatik etorri baita.

Aldizkako ekarpenaren profilari dagokionez, batez bestekoa **74 eurokoa** izan ohi da, iaz baino % 5 handiagoa, eta ezohiko ekarpena **1.659 eurotan** kokatu da, % **9,5** hazita.

Honekin guztiarekin, Kutxabankek indartu egin du euskal merkatuan aurreikuspen indibidualeko produktuetan orain arte zuen lidergoa. Uztailaren amaieran % **47ko kuota** zuen, **5.806 milioi** euroko ondarea kudeatzen zuen -2019ko uztailean baino % **3,32** handiagoa-, eta **2703.000 bazkide** inguru zituen.

Kutxabankek kudeatzen diren aurreikuspen produktuetan egiten diren inbertsio guztiak **gizarte ikuspegitik irizpide arduratsuen** baitan egiten dira. Honela bermatzen da kapitala inbertitzen den enpresa guztiek Giza-eskubideak eta ingurugiroaren zaintza errespetatzen dituztela, eta bidezkoak direla beren Gobernu-jokabideak eta fiskaltza.

---